Araugintza
I. ikastaroa



4. saioa
Izen Sintagma

Arauen laburpena
Ohiko akatsak

Ariketak

EUSKARAREN IRAKASKUNTZARAKO
BALIABIDE ZENTROA

Mokarte parkea z.g.
31620 Uharte. Nafarroa
948 361093 Fax: 948 361092

Aurkibidea

Aditz Sintagma. Ariketa orokorra 3
ADITZ SINTAGMA: ARAUEN LABURPENA 4
"Diptongoz bukatzen diren izenen deklinabidea"..... 4
"Partitiboa baiezko perpausetan noiz eta nola" 4
"Hiru urteko haurra, lau hankako mahaia"..... 4
"Orduak nola esan"..... 5
"Data nola adierazi" 6
"Iraupena eta maiztasuna adierazten duten sintagma zenbatzailedunetan mugatu singularra noiz erabil daitekeen" 8
ARAUAK: ARIKETAK 10
Data eta ordua..... 10
-(e)ko, -(e)tako..... 15
Iraupena eta maiztasuna 16
OHIKO AKATSAK: TEORIA 17
OHIKO AKATSAK: ARIKETAK.....18
Aste egunen eta hilabeteen deklinabidea..... 18
Zenbait kalko, denbora esapideetan 18
Hiruan etorriko naiz / Hiruretan etorriko naiz..... 18

Izen Sintagma. Ariketa orokorra

Aukera ezazu erantzun zuzena. Gogoan izan erantzun bakarra dela hautatu beharrekoa.

1. *Zein da zuzena?*
   a) Etxe atzeko zelaiean txanpiñoi ugari atera da.
   b) Etxe atzeko zelaian txanpiñoi ugari atera da.
   c) Edozein gaiz mintza daiteke lagun hori.
2. *Hemendik aitzinera, izanen da aldaketarik gure lantokian.* Zer erran nahi ote du?
   a) Hemendik aitzinera, aldaketatxoren bat edo bertze izanen dela gure lantokian.
   b) Hemendik aitzinera, aldaketa handiak izanen direla gure lantokian.
   c) Hemendik aitzinera, ez dela aldaketa handirik izanen gure lantokian.
3. *Hauen artean, zein hobesten du Euskaltzaindiak?*
   a) Bortz urteko haurrak gela honetara etortzen dira.
   b) Bortz urtetako haurrak gela honetara etortzen dira.
   c) Bortz urteetako haurrak gela honetara etortzen dira.
4. *Zein da zuzena?*
   a) Hiru eta erdietan hasiko dira arratsaldeetako eskolak.
   b) Hiru t'erdietan hasiko dira arratsaldeetako eskolak.
   c) Hiru ta erditan hasiko dira arratsaldeetako eskolak.
   d) Hiru t'erditan hasiko dira arratsaldeetako eskolak.
5. *Zein da zuzena?*
   a) Leitza, 2003ko abenduaren 14
   b) Leitzan, 2003ko abenduaren 14an
   c) Leitza, 2.003ko abenduaren 14a
   d) Leitza, 2003ko abenduak 14a
6. *Zein **EZ** da zuzena?*
   a) Hiru astetik behin paratzen dut azterketa batxilergoko taldeetan.
   b) Hiru astean behin paratzen dut azterketa batxilergoko taldeetan.
   c) Hiru astez behin paratzen dut azterketa batxilergoko taldeetan.
   d) Hiru astero paratzen dut azterketa batxilergoko taldeetan.
7. *7. Zazpi urtez bizi izan naiz Txinan.* Bestela esanda*:*
   a) Zazpi urtetan bizi izan naiz Txinan.
   b) Zazpi urteetan bizi izan naiz Txinan.
   c) Zazpi urtean bizi izan naiz Txinan.

IZEN SINTAGMA: ARAUEN LABURPENA

"Diptongoz bukatzen diren izenen deklinabidea"

(29. araua, 149. or.)

Diptongoz bukatzen diren izenak bokalez bukatutakoak bezalaxe deklinatzen dira: *uztailaren lauan, zenbait kristauk, zelaitik, jaitik, garaian...*

Salbuespenak:

a) *"gau"* hitzaren kasu hauetan: *gauez, gaueko, gauean.*

b) *"lau"* izenordain bezala jokatzen denean: *laurak etorri dira, lauretan joanen gara,* etab.

c) silaba bakarrekoek instrumentalean honela eginen dute: *edozein gaiez solastu, jaiez jai ibili,* etab.

"Partitiboa baiezko perpausetan noiz eta nola"

(30. araua, 165. or.)

Baiezko perpausetan partitiboa erabil badaiteke ere, enfasi-esanahira bakarrik mugatu behar da, testuinguru berezietara, tradizioan beti izan den bezala. Halakoetan, normalean, izenak sintagma adjektibala behar du ondoan. Izena soilik utzi nahi bada, interpretazio zuzena egiten lagunduko duen eran jarri behar da:

- *Badauka lanik konjuruak egiten:* ondoan izenondoa izango balu bezala ulertzen da (*lan handia* edo *zaila* duela esan nahi da).
- *Azken bolada honetan izan da aldaketarik gure inguruan* (aldaketa handiak edo sakonak izan dira).

"Hiru urteko haurra, lau hankako mahaia"

(34. araua, 177. or.)

Euskaltzaindiak *–ko* atzizki-forma hobesten du, eta ez *–tako* ondoko bi kasu hauetan:

- *Nolako(a)* galdetzaileari erantzuten dioten sintagmetan: *adineko neska, neurri txikiko oinetakoak...*
- Oinarrian zenbatzaileren bat ageri denean eta adina, prezioa, neurria, pisua… adierazten duten izenlagunak osatzen direnean: *bortz liberako egunkaria, ehun orrialdeko liburua, hamasei milioiko etxebizitza, lau asteko oporrak, zortzi kilometroko ibilbidea...*

"Orduak nola esan"

(35. araua, 181. or.)

Nola arraio idatzi behar dira orduak?

- ***Ordu bata ala ordubata?***
  - Bereizita, beti; hots, honela: *ordu bata, ordu biak...* eta ez honela: **ordubata, *ordubiak*
- ***-retan, noiz?***
  - ***Lau*** eta ***hiru*** hitzekin besterik ez: *hiru**r**ak, hiru**r**etan, lau**r**ak, lau**r**etarako...*
  - Gainerakoekin ez (sei, zazpi, zortzi...): *seiak, seietan; zazpiak, zazpietan; zortziak, zortzietan...* eta ez: **seiRak, *seiRetan, *zazpiRak, *zazpiRetatik...*
- ***Eta erdiak ala t'erdiak?***
  - Idaztean, ***"eta erdiak"*** erabiltzea gomendatzen du Euskaltzaindiak: *sei eta erdiak dira* eta ez **sei t'erdiak dira.*
  - Erabilera enfatikoetan bakarrik erabili *"t'erdi"* aldaera: *agur t'erdi,* esate baterako.
- ***Gutxi ala gutxiago?***
  - Biak onartzen ditu Euskaltzaindiak, nahiz eta ***"gutxi"*** forma hedatuena dela azaldu: *zazpiak hamar gutxi, zazpiak hamar gutxiago...*
  - Deklinatzean, mugagabean jarri: *zazpiak hamar gutxi**tan,** zazpiak hamar gutxiago**tan...***
- ***Nola deklinatu behar dira orduak eta minutuak?***
  - ***Orduak:*** Pluralean (*"ordu bata"* izan ezik, horretan singularra erabili behar baita).

    Ordu biak, hiruretan, seietatik, zortzietako...

    Ordu batean, ordu bata, ordu batetik, ordu bateko...
  - Ordua zenbaki bidez adierazten dugunean, berdin jokatu:

    01:00ean, 01:00etik, 01:00era...

    02:00etan, 03:00etan, 06:00etatik...
  - Ordua zenbaki bidez adieraztean, ez ahantzi bi punturekin bereizten direla orduak eta minutuak, eta bakoitzeko bi zifra erabili behar direla beti: *00:12, 12:10, 09:25...*

- *Ordu* hitzaren ordez, *oren* hitza ere erabil daiteke*: oren bata, bi orenak, bi orenetan, oren bat eta erdiak...*
- ***Minutuak:*** Singularrean, beti, bai letraz, bai zenbaki bidez idaztean (eta, behar denean, loturazko bokala sartuta).

  Ordu bata eta hamarrean
  01:10ean
  Ordu biak eta hamazazpian
  02:17an
  Seiak eta hogeita bostean
  06:25ean

Ø ***Berdin jokatu behar al dugu laurdenekin eta erdiekin?***

- ***Laurden***ekin bi erabilera onartzen ditu Euskaltzaindiak: *Ordu bi eta laurdenak* eta *ordu biak eta laurden.*
- ***Hala ere, adi!*** Leku-denborazko kasuetan (NOIZ, NOIZTIK, NOIZKO...), ordua letraz idaztean, plurala erabiliko dugu:

  *Ordu bata eta laurden**etan***
  *Ordu bi eta erdi**etan***

- Bestalde, ordua zenbaki bidez ematen dugunean, singularrean paratuko ditugu bi kasu horiek:

  *01:15**ean,** 02:30**ean,** 06:45**ean...***

Kontraesana dirudien arren, ez da hala. Zenbaki horien azpian egitura hauek ditugu: *ordu bata eta hamabostean, ordu biak eta hogeita hamarrean, seiak eta berrogeita bostean...*

- Irakurtzeko garaian hobe da honela irakurtzea:

  15:00etan (hiruretan)
  15:03an (hirurak eta hiruan)
  15:30ean (hiru eta erdietan)

- Erabilera formaletan, dena den, *hamabostetan, hamabostak eta hiruan, hamabostak eta hogeita hamarrean.*
- Egitarau, kartel eta antzekoetan, erdibide hau ere ontzat ematen da: *arratsaldeko 5etan, goizeko 11,30etan, iluntzeko 8etatik 11k arte...*

"Data nola adierazi"

(37. araua, 193. or.)

Ø ***Punturik jarri behar al dugu urteak idaztean?***

- Urte bat idaztean, ez punturik jarri milakoen eta ehunekoen artean. **2.001* oker; ***2001*** ongi.

Ø ***Nola jokatu behar dugu "garren" adierazi nahi dugunean?***

- Zenbakiak zifra bidez ematean, *1999.eko, 1995.eko* (Kasu! Deklinatzean *-(e)ko* jarri behar duzu beti, *-garreneko* baitago azpian).
- *KONTUZ!* Ez nahastu zifrak eta letrak: **2001garren, *sei.ean...*

Ø ***Nola idatzi behar dira hilabeteak eta egunak?***

- Hilabeteen eta egunen izenak beti letra xehez: *uztaila, urria, azaroa...*
- Hilabeteen bukaerako *–A* artikulua da, beraz, argi ibili deklinatzean, *-A* hori gabe egin beharko baituzu: *urtarril**ean,** otsail**eko,*** eta ez **urtarril**an,* *otsail**ako...***

Ø ***Nola gomendatzen da idaztea data gutunetan-eta?***

- *Tutera, 2001eko urri**aren** 3**a.*** edo, *Tutera**n**, 2001eko urri**aren** 3**an.***
- Gogoratu eguna beti artikuluarekin idatzi behar dela: *3**a*** edo *3**an.***
- Kontuz zenbaki batzuk deklinatzerakoan: *11**n*** eta *31**n,*** esaterako.

Ø ***Noiz erabiltzen ahal da** "irailak 7" **egitura?***

- Data adierazteko: *2006ko azaroak 7*
- Beste zerbaiten aposizioan doanean:

  Bertso afaria asteazkenean, urtarrilak 12, eginen dugu.

  Beti inolako kasu-markarik erantsi gabe erabili behar da egitura hau.

  **Bertso-afaria ~~urtarrilak 12an~~ eginen dugu.*

“Iraupena eta maiztasuna adierazten duten sintagma zenbatzailedunetan mugatu singularra noiz erabil daitekeen”

(110. araua, 1075. or.)

Euskal literatur tradizioa eta ahozko euskararen erabilera kontuan hartuz, hau da Euskaltzaindiaren erabakia:

1. IRAUPENA ADIERAZTEKO

Absolutiboaz eta instrumentalaz gainera, inesiboa erabiltzen da maiz iraupena adierazteko sintagmetan.

Inesiboko sintagma hauei dagokienez, mugagabea erabiltzea zilegi izanagatik, mugatu singularra erabiltzea hobesten da honako kasu honetan: zenbatzailedun sintagma horrek adierazten duen denbora **etengabeko unitate bakar gisa hartzen denean**, hots, inesiboaren bidez prozesu edo gertaera baten iraupena adierazten denean. Adibidez:

- *Hiru astean* asko hazi da haurra.
- *Hiru urtean* ikasi du euskara.
- *Lau urtean* lan egin du Afrikan.

Hauetan guztietan iraupena adierazten da.

Iraupenik adierazten ez denean, noski, mugagabeak ohiko lekua izango du. Hiru urteko iraupena adierazi beharrean hiru urte desberdinetan gertatu den zerbait adierazi nahi bada, mugagabea beharko da:

- *Hiru urtetan antolatu dute danborrada.*

2. MAIZTASUNA ADIERAZTEKO

Maiztasuna adierazteko ereduen artean, **mugagabeko erabilerekin batera**, hots:

- *Lau urtez behin* elkartzen dira senitartekoak.
- *Lau urtetarik behin* elkartzen dira senitartekoak.
- *Lau urtetarik lau urtetara* elkartzen dira senitartekoak.
- *Lau urterik behin* elkartzen dira senitartekoak.

Formaz mugatu singularra dena ere aukeran dugu:

- *Lau urtetik behin* elkartzen dira senitartekoak.
- *Lau urtetik lau urtera* elkartzen dira senitartekoak.

Inesiboaren kasuan, berriz, forma mugatua da erabili behar dena honelakoetan:

- *Lau urtean behin* elkartzen dira senitartekoak.

Maiztasuna adierazteko egituren artean, *[izena + -ero*] gisako esamoldea onartzekoa da:

- *{Astero, hilero, ordulaurdenero...} etortzen da.*

Baina bada hedatuxea den egitura bat, gaitzestekoa dena, *-ERO* atzizkiaren bidez osatua: **[zenbatzailea + izena + -ero]* sintagma. Esaterako:

- **Bi urtero* egiten dute bilera batzordekoek.
- **Hamabost egunero* etortzen zait bisitan.

Hamabostero, ordea, onartzekoa da, *hamabostean behin* nahiz *hamabosterik behin*-en parean.

ARAUAK: ARIKETAK

Data eta ordua

A. Aukeratu erantzun zuzena. Baina, kontuz, batzuetan erantzun zuzen bat baino gehiago daude eta!

1. a) Lauaxeta 1.905ean jaio zen.
   b) Lauaxeta 1905ean jaio zen.

2. a) Mila bederatziehun eta bosgarren urtean jaio zen Lauaxeta.
   b) 1.905garren urtean jaio zen Lauaxeta.
   c) 1905garren urtean jaio zen Lauaxeta.
   d) 1905. urtean jaio zen Lauaxeta.

3. a) Bilera astelehen batean egin genuen, uztailaren 10ean.
   b) Bilera Astelehen batean egin genuen, Uztailaren 10ean.

4. a) Maiatzan deialdia eginen dugu. Ekainan, berriz, azterketa.
   b) Maiatzean deialdia eginen dugu. Ekainean, berriz, azterketa.

5. a) Iruñea, 2001eko urriaren 28
   b) Iruñea, 2001eko urriaren 28a
   c) Iruñean, 2001eko urriaren 28an
   d) Iruñean, 2001eko urriak 28
   e) Iruñean, 2001eko urriak 28an

6. a) Izena emateko epea ekainak 28tik uztailak 8ra dago zabalik.
   b) Izena emateko epea ekainaren 28tik uztailaren 8ra dago zabalik.

7. a) Ordubiak dira.
   b) Ordu biak dira.

8. a) Hiruretan sartu nintzen ohera eta seiretan esnatu.
   b) Hiruetan sartu nintzen ohera eta seiretan esnatu.
   c) Hiruretan sartu nintzen ohera eta seietan esnatu.
   d) Hiruetan sartu nintzen ohera eta seietan esnatu.

9. a) Autobusa ez da zazpiak arte irtengo.
   b) Autobusa ez da zazpirak arte irtengo.

10. a) Sei eta erdietan heltzen naiz etxera egunero.
    b) Sei t'erdietan heltzen naiz etxera egunero.

11. a) Zortziak hogei gutxitan sartzen naiz lanera.
    b) Zortziak hogei gutxiagotan sartzen naiz lanera.

12. a) Idazkaritza bulegoa 09:00tik 14:00ra egon ohi da zabalik.
    b) Idazkaritza bulegoa 09:00etatik 14:00etara egon ohi da zabalik.

13. a) 08:40etan heltzen naiz lantokira eta 17:30etan irteten.
    b) 08:40an heltzen naiz lantokira eta 17:30etan irteten.
    c) 08:40an heltzen naiz lantokira eta 17:30ean irteten.

14. a) Hala ere, gehienak 17:15ean irteten dira.
    b) Hala ere, gehienak 17:15etan irteten dira.

15. a) Bostak eta hamabostetan irteten dira gehienak.
    b) Bostak eta laurdenetan irteten dira gehienak.
    c) Bostak eta hamabostean irteten dira gehienak.
    d) Bostak eta laurdenean irteten dira gehienak.

B. Zuzen itzazu zure iritziz oker daudenak.

ETXEPARE B.H.I.

Irailako Egutegia: 2001-2002 ikasturtea

∨ ***Astelena, Irailak 3an:***	-12:00tan -14:00tan	*Irakasgai gainditugabeen ebaluazioa* *Irakasgai gainditugabeen notak iragarki oholean agertuko dira.*

Ebaluazio saioak:

∨ ***Asteazkena, Irailak 5:***	- 9:00tan	*Batxilergoko 2.B*
	- 9:30tan	*Batxilergoko 2.A*
	-10:00tan	*Batxilergoko 1.A*
	-10:30tan	*Batxilergoko 1.B*
	-11:10tan	*Batxilergoko 2. mailako noten banaketa*
	-12:15tan	*Batxilergoko 1. mailako noten banaketa*
	- 12:15tatik 14:30era	*Erreklamazioak eta Selektibitaterako matrikula*

∨ ***Ortzeguna, irailak 6a:***	- 9:00tatik 12:00tara	*Erreklamazioak eta Selektibitaterako matrikula*

Obaba, 2002eko Ekainaren 30-an.

ZUZENDARITZA

C. Bete itzazu hutsuneak:

Gaur Getxoren aurkako adiskidantza partida Athleticek eta Getxok lagunartekoa jokatuko dute gaur 17:30_____ San Mamesen.	**Eibar-Osasuna eta Real Union-Athletic partidak, iluntzeko 20:00_____.** Azaroaren 6_____ jokatuko diren Espainiako Kopako kanporaketak ari dira zehazten eta bi partida hauek 20:00_____ jokatuko direla jakinarazi zuten klubek atzo.
ENTRENAMENDUAK • Athletic. 10:30_____ entrenatuko da Lezaman. • Reala. Goizean gimnasioan ariko dira eta arratsaldean Zubietako zelaian 16:15_____. • Osasuna. Taxoaren ariko dira 10:45_____.	**Alaves-Besiktas** Joaneko partida urriaren 31_____ jokatuko dute 20:45_____.ETB1____ osorik eskainiko du.
IPUIN KONTAKETA • ***IRUN.*** Gaur, azaroak 15_____, udal liburutegian 17:30_____. Datorren asteartean, azaroak 22_____, kultur etxean. ***HERNANI.*** Bihar Pello Añorga 18:30_____ eskolan.	

D. Jar itzazu idatziz ordu hauek:

Orduak	Zer ordu da?	Zer ordutan?
13:00		
05:05		
16:15		
18:40		
03:30		
07:45		
12:25		

E. Aukera itzazu zuzen idatzita daudenak:

A	B	C
1996ko irailak 5ean	1996ko irailaren 5ean	1996ko iraileko 5ean
Uztailetik Irailera	uztailatik irailara	uztailetik irailera
1931an	1931n	1931ean
1225-ean	1225ean	1225an
31-VI-1999	1999-31-VI	1999-VI-31
maiatzaren 4-an	maiatzaren 4ean	maiatzaren 4an
2003ko irailaren 5ª	2003ko Irailak 5ean	2003-ko irailaren 5-a
1.527tik aitzina	1527tik aitzina	1527etik aitzina
2.000. urtean	2000. urtean	2.000 urtean
XVII mendean	XVII. mendean	XVIIgarren mendean
2006tik 2010era	2006etik 2010era	2.006tik 2.010era
1964ko urtarrilatik	1964eko urtarrilatik	1964ko urtarriletik
otsailaren 1-an	otsailaren 1ean	otsailaren 1an
martxoaren 11ean	martxoaren 11an	martxoaren 11n

-(e)ko, -(e)tako

A. Jar itzazu “-(e)KO” edo “-(e)TAKO” atzizkiak ondorengo esaldietan:

1. Bost orri_____ gutuna idatzi diot nire lagunari.
2. Hiru hanka_____ mahaia erosi dugu.
3. Neurri txiki_____ soinekoak gustatzen zaizkio amari.
4. Hiru aste_____ egonaldia egiteko asmoa du.
5. Hiru etxe dira auzoan eta hiru etxe_____ haurrak etorri zaizkio.
6. Hirurehun kilo_____ harria aspaldi jaso zuen Perurenak.
7. Zazpi egun_____ epea duzu eskabidea egiteko.
8. Zer egiten ahal du urte gutxi_____ haurrak gurasorik gabe?
9. Patxik hamar mila euro_____ autoa erosi berri du.
10. Ez dakigu zein hamar herri_____ alkateak etorriko diren Batzar Nagusira.
11. Hamar metro_____ garaiera du Juantxoren etxeak.
12. Errioxako bi upeltegi_____ ardoa erosi dut etxerako.
13. Bi urte____ ardoa erosi dut. (bi urte dituena)
14. Azken bi urte_____ ardoa erosi dut.
15. Urte askotako ardoa jarri ziguten aukeran, baina niri bi urte_____ gustatu zitzaidan batez ere.

Iraupena eta maiztasuna

Itzul itzazu esaldi hauek:

1. Ha trabajado durante cinco años en África: de 1998 a 2002.

2. Han organizado esta fiesta cinco años (ez jarraian).

3. Tenemos vino de (hace) cuatro años.

4. En esta bodega puedes encontrar vino de cuatro años (cosechado en cuatro años).

5. Hacen una comida cada dos meses.

6. Le llaman por teléfono cada cuarto de hora.

7. Viene a nuestra casa cada quince días.

8. Ha ganado esta competición tres años (ez jarraian).

9. Nos vemos cada tres semanas.

OHIKO AKATSAK: TEORIA

1. Maiz asteko egunak eta hilabeteak –***a*** itsatsia balute bezala deklinatzen dira. Gogora ezazu ez dagoela ez egun eta ez hilabete bakar bat ere –*a* itsatsia duenik.

*Astelehenan joango naiz	Astelehenean joango naiz
*Ostegunatik larunbatara	Ostegunetik larunbatera

Asteko egunak: **astelehen, astearte, asteazken, ostegun, ostiral, larunbat, igande.**

*Maiatzatik irailara	Maiatzetik irailera
*Urtarrilakoa	Urtarrilekoa

Hilabeteak: **urtarril, otsail, martxo, apiril, maiatz, ekain, uztail, abuztu, urri, azaro, abendu.**

2. Oso ohikoa da denbora-esapide zenbait erdaratik hitzez hitz itzultzea.

*Arratsalde honetan atseden hartuko dut.	Gaur arratsaldean atseden hartuko dut.
*Urte honetan euri asko egin du.	Aurten euri asko egin du.
*Beste egunean haserre zegoen	Aurreko egunean / joan den egunean / lehengo egunean haserre zegoen
*Aste honetan ez, bestean	Aste honetan ez, hurrengoan

3. Ohikoa da orduak eta egunak nahastea. Kasu!

Hiruan etorriko naiz ≠ Hiruretan etorriko naiz

Hamarrean ikusiko dugu elkar ≠ Hamarretan ikusiko dugu elkar.

Ilari eta Entzi Zubiriren *Euskal gramatika osoa* liburutik jasoa eta moldatua

OHIKO AKATSAK: ARIKETAK

Aste egunen eta hilabeteen deklinabidea
Zenbait kalko, denbora esapideetan
Hiruan etorriko naiz / Hiruretan etorriko naiz

Itzulpenak

1. De mayo a septiembre me levanto a las seis y media; en cambio, de octubre a abril, a las ocho menos cuarto.

2. ¿De cuándo son estas revistas? Ésta es de enero y ésta otra de julio.

3. Iré el lunes y no el miércoles.

4. Esta tienda permanecerá cerrada de jueves a sábado.

5. Las próximas elecciones municipales se celebrarán en junio de 2008.

6. Esta mañana hemos andado por el monte y esta tarde descansaremos.

7. El otro día estaba enfadado.

8. ¿Cuándo vendréis? Esta semana no, la otra.

9. Este año ha llovido mucho.

10. Mi hijo nació el 20 de enero de 1995 y no el 2 de febrero de 1996.

11. Nos veremos el diez, porque el once me marcharé de vacaciones.

12. El (día) tres yo no voy a poder.

13. Nos veremos a las diez porque a las once tendré una reunión.

14. No voy a poder a las tres, pero sí a las seis.